AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5466

1299/2013 EBAZPENA, irailaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Alberto Manzano Ramírez jauna Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari mediko izendatu eta zerbitzu berezietan deklaratzekoa.

Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari mediko lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen uztailaren 22ko 1209/2013 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2013ko abuztuaren 7ko EHAAn argitaratu (149. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Alberto Manzano Ramírez jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Alberto Manzano Ramírez jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa, Arabako Unibertsitate Ospitaleko Medikuntza Intentsiboko Fakultatibo Espezialista Mediko gisako lanpostu funtzionalaren 860. ordena-zenbakiko plazaren titularra, Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari mediko lanpostua betetzeko izendatu da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Alberto Manzano Ramírez jauna Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2013ko irailaren 9tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Alberto Manzano Ramírez jauna zerbitzu berezietan deklaratzea, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.